

# Martxaren leku eta ordutegia

Martxaren **data**: 2024-09-28

**Lekua**: Abadiño, Zelaieta auzoa.

**Irteera**: 08:00tan San Trokaz plazatik (Udaletxe pareko plaza)

**Helmuga**: Gaztañodi. (metaren itxiera ordua: 14:30)

## Izen-emateak

Parte hartzaile **gehieneko** kopurua: 300

Izen emateen **zabaltze-data**: 2024-01-25

Izen emateen **itxiera-data**: 2024-09-22, 12:00

**Gutxieneko adina**: 18 urte

**Salneurriak**:

- Bazkari gabe: 25€
- Bazkariarekin: 30€.

## Ordutegiak

### Martxa laburra

- 08:00 Irteera. Trabakuako gaina arte neutralizatua.
- 10:00 Elgeta. 10:00etan zabalduko da Elgetatik pasatzeko aukera.
- 14:30 Abadiño - Zelaieta. Helmugaratzeko gehieneko ordua.

### Martxa luzea

- 08:00 Irteera. Trabakuako gaina arte neutralizatua.
- 10:00 Elgeta. 10:30tan zabalduko da Elgetatik pasatzeko aukera.
- 11:30 Kanpazar gaina. Bertatik pasatzeko gehieneko ordua. 11:30tatik aurrera, martxa laburrera bideratu beharko dira txirrindulariak, Elorriorako bidea hartuz.
- 14:00 Tabira (Durango). 14:00etatik aurrera, zuzenean Abadiñora bideratuko dira txirrindulariak, Larringaneko auzotik pasa gabe.
- 14:30 Abadiño - Zelaieta. Helmugaratzeko gehieneko ordua

## Anoa gune eta bazkaria

Bi anoa gune eskaintzen dira bidean, Elgeta eta Legution. Bazkaria Probalekuan burutuko da 15:00etatik aurrera.